



AIARALDEKO EUSKALGINTZA

KONTSEILUA



PRENTSA OHARRA 2022/11/10

AIARALDEKO EUSKARAREN EGUNA ELKARREKIN

Badugu jada topagunea, badugu hitzordua: Aiaraldeak eta euskarak bat egingo dute **abenduaren 3an Arakaldon**.

Komunitatea batu eta euskara bultzatu: xede horrekin hasi zen **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua** 2016an eskualdean Euskararen Eguna elkarrekin ospatzeko jaia antolatzen. Amurrion "aterkipean" hasitako bidaiak Urduña, Laudio, Orozko eta Luiaondo izan ditu geltoki. Aurten berriz, Arakaldoren txanda heldu da. Ekimena, **Arakaldoko Udalaren** ezinbesteko babes eta laguntzarekin gauzatuko dugu.

Arakaldok, herri txikia izanagatik ere, baditu baldintza interesgarriak: azpiegitura anitz bat (frontoia, bolatokia, txokoa eta jolastokiak biltzen dituen plaza ederra adibidez) eta natur inguru erakargarri bat. Herria bada agian, Aiaraldeko txoko ezezagunetako bat. Hori balioan jarri eta ezagutarazteko aukera baliatuko dugu abenduaren 3an.

Euskaraldiari ginga jarriko dio aurten Euskararen Egunak. Hizkuntz ohiturak aldatzeko ariketaren ostean, Aiaraldeko komunitatea Arakaldon bildu nahi dugu, elkarrekin ospatu eta egindako bidea elkarrekin partekatzeko.

Abenduaren 3an publiko denentzako egitarau ederra izango da Arakaldon: kultura, musika, umorea, jolasak, dantza eta kirola presente izango direlarik. Jan eta edanik ere ez da faltako, noski. Finean adin guztietarako deialdia, berriz ere Euskaraktibatu gaitezen. Euskara plazaren erdigunera ekarri eta gure hizkuntza mingainean, goza dezagun.

Aurten berrikuntzekin dator ospakizuna, Euskaraldiarekin paraleloan **Memealdia** hasiko baita Aiaraldean! Gazte eta nerabeei bereziki zuzendutako ekimenaren berri zehatzagoa laster izango duzue. Adi beraz memelariok.



Ume eta gaztetxoek ere izango dute protagonismoa, Arakaldon **Euskararen Zuhaitza** osatzeko erronka izango baitute, gure hizkuntzaren inguruan plazaratuko dituzten mezu, kezka, proposamen, eskaera, aldarrikapen eta abarrekin. Izar, hosto eta fruitu koloretsuz jantziko dugu Arakaldoko plazan Euskararen Zuhaitza.

Mendi martxa, musika girotzea, umeentzako jolasak, bakarrizketa umoretsua, erraldoiak, egurrezko jolasak, bola jokoa, esku pilota, dantza plazan, erromeria, DJak... Egun pasa ederra egingo dugu Arakaldon.

Hau guztia aurrera ateratzeko, ikastetxe, entitate eta elkarte ezberdinak izango ditugu bidelagun eta konplize. Euskararen normalkuntza dugu xede eta bide horretara batzera deitu nahi dugu komunitate osoa.

**Komunitatea batu. Euskara bultzatu.
Aiaraldea euskaraktibatu!**

Abenduaren 3an denok Arakaldora!

Gehiago jakiteko, jarraitu gaitzazu::

<http://aiaraldekoeuskaingintza.eus/>
<https://aiaraldea.eus/komunitatea/AiaraldekoEuskaingintzaKontseilua>

Jaiko egitaraua:

<https://labur.eus/arakaldon>

Sare sozialetan:

[youtube](#)

[facebook](#)

twitter [@eusk_kontseilua](#)

instagram [@aiaraldeko_euskal](#)

